



AKTEA/01

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2023-01-10)

Batzarraren izaera:	O hikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2023-01-10 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:06
Amaiera-ordua:	08:08
Alkate-Presidentea:	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ
Batzordekideak:	PLATAS ARENAZA M. IDOYA LEIZAOLA ZULUETA MAITANE ZUMETA GARRO ALAZNE LEGARRETA ERKIAGA IBON
Bertaratu ez direnak:	ZUMETA GARRO KEPA
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B761E0018J4O5K1Z4X9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 11/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/01/2023 11:33:06

DOCUMENTO: 20230751134

Datea: 11/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2022-12-20 TGB (37)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Iñaki Latxaga Bengoetxea jaunari, zendu osteko urrezko domina emoteko espedienteari hasikera emotea.
- 4.- Udalaren SARRERA ERREGISTROA eraginkortasunez kudeatzeko jarraibidearen eta ZABALTZEN APParen eguneraketa onartzea.
- 5.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 6.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legeko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaiza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2022-12-20 TGB (37)

Bertaratutako batzarkideek 2022ko abenduaren 20ko 37/2022 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIARIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Ibon Legarretak gai zerrendako 4. puntuan abstenitzeko betebeharra ematen dela azaldu du.

3.- IÑAKI LATXAGA BENGOETXEA JAUNARI, ZENDU OSTEKO URREZKO DOMINA EMOTEKO ESPEDIENTEARI HASIKERA EMOTEA.

Xedea

Iñaki Latxaga Bengoetxea jaunari, zendu osteko urrezko domina emoteko espedienteari hasikera emotea.

Aurrekariak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B761E0018J4O5K1Z4X9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 11/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/01/2023 11:33:06

DOCUMENTO: 20230751134
Datea: 11/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Bakarra: Iñaki Latxaga Bengoetxea jaunari, zendu osteko urrezko domina emon gura jako, bere ekintzailatza, herriko ekonomian izangako eraginagaitik, Bermeoko izena munduan zehar zabaldu eta kultur eta kirol taldeeri emondako laguntzagaitik, O horetako eta Handigarrietarako Araudiaren baitan. Horretarako, egokia dan espedientea izapidetu beharra dago.

Argudioak

Lehenengoa: O horetako eta Handigarrietarako Araudiak honakoa dino:

1. artikuluan: " Bermeoko herria eta baita gizartea orokorrean, goratzeko eta handitzeko, funtsean, diran kultur, kirol, zientzi, arte, giza edo ekonomi arko edo beste edozer izandako meritu bereziak, zerbitzu nabariak edo lan baliagarriak edota beste edozelako ekarpen saritzeko, Bermeoko Udalak emon ahal dauzan ohore eta goraipamenak arautzea dau Araudi honek bere xedea".

4. artikuluan: "Bermeoko Udalak, eta lehentasun honetan, emon leitekezan ohore eta goraipamenak honako honeek izan daitezke:

(..) c) Bermeoko Herriko Urrezko Domina".

6. artikuluan: "Urrezko eta Zilarrezko Dominak, pertsona fisiko bizi edo hildakoei eta baita pertsona juridikoei emon daitezke".

10. artikuluan: "Araudi honetan aurreikusten diran ohore eta goraipamenak emon ahal izateko, derrigorrezkoa izango da, jagokon espedientea zabaltzea. Goraldu nahi dan pertsona edo erakunderen meritu edo egoerak egiaztatuko dira espediente honetan".

11. artikuluan: "O hore edo goraipamen honeetariko baten emote-espeditentari hasiera emoteko, Gobernu Batzordearen erabakia beharrezkoa izango da".

12. artikuluan: "Idazkaritza Orokorraren ardura izango da, meritu eta egoeren justifikazio espeditentea bideratu eta tramitatzea, zerbitzu, ekintzak eta egitateak era egokian agertarazteko beharrezkoak liratekeen informazio eta frogak sarturik".

13. artikuluan: "Espeditentearen instrukzioa amaitu ondoren, egindako ikerketa, saiaketa eta frogen ondorena azaldu dau zehaztasunez, tramitatutako espeditentearagaz batera Kultura Batzordera (gaur egun Herritarren Batzordea) bialduko daualarik.

Espeditentari buruzko bere diktamena emongo dau Batzorde honek, Udal Osoko Bilkurara eroango dauelarik, emoten dan sari mota proposatuz".

14. artikuluan: "(..) <<Urrezko>> nahiz <<Zilarrezko Dominak>> emoteko, Udalbatzeko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoaren baiezko botoa beharko da".

15. artikuluan: "Bereziki, hildakoei ohore eta goraipamenak emonez gero eta egoerak horrela eskatzen badau, ezarritako jardunbidea alde batera itzirik emon leitekez, Alkate-Udalburuak proposamena eginik eta Udal Osoko Bilkurak onarturik, aurreko artikuluan agertutako



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000B761E0018J4O5K1Z4X9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 11/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/01/2023 11:33:06

DOCUMENTO: 20230751134

Fecha: 11/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



quorumagaz”.

Beraz, zendu osteko goraipamena izanda, izapidetza arrunta alde batera itxita onartu leike urreko domina emotea, baina izapidetz arrunta bideratzeko agindua emon da Alkatetzatik.

Bigarrena: Hori horrela, goraipamena onartzeko emon beharreko pausoak honeek izango dira:

- 1.- Tokiko Gobernu Batzarrak espedienteari hasiera emotea onartu.
- 2.- Idazkaritza Sailak espedientea izapidetu beharrezko frogagiriak gehituta.
- 3.- Herritarren Batzordeak diktaminatu.
- 4.- O soko Bilkurak erabagia hartu, gehiengo osoagaz.

Hirugarrena: Goraipamena emotea onartu ezker, bere ezarpena O horetako eta Handigarrietarako Araudiaren 17. eta 18. artikuluetan araututakoa jarraituko da.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 159.5.g) artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratu ireki oso sinplifikatueta kontratuaren formalizazioa esleipendunak esleipen erabakia onartzearen sinadura hutsarekin egin daiteke.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Iñaki Latxaga Bengoetxea jaunari, zendu osteko urrezko domina emoteko espedienteari hasikera emotea.

BIGARRENA: Idazkaritza Sailari espedientea izapidetzeko agindua emotea.

HIRUGARRENA: Hurrengo O soko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

4.- UDALAREN SARRERA ERREGISTROA ERAGINKORTASUNEZ KUDEATZEKO JARRAIBIDEAREN ETA ZABALTZEN APPAREN EGUNERAKETA ONARTZEA.

Xedea

Udaleko jarraibideen eguneraketa onestea, herritarrei ZABALTZEN app bidez eskaintzen zaio informazio eta abisu sistema eraginkortzeko eta udaleko ERREGISTROAK, legeek ezarritako betekizunetara egokituta Erregistroen interkonexio sistema aukera bermatu dezan.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B761E0018J4O5K1Z4X9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 11/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/01/2023 11:33:06

DOCUMENTO: 20230751134
Data: 11/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalak, udalaren kudeaketa Iso 9001 ereduaren arabera egituraturik eta antolaturik izan du, 2004 urtetik. Ordurik eta lehen ikuskaritza egin zenetik, urtero Zuzendaritzaren Berrikuspena egin izan da, prozedura eta inprimaki guztien berri eman eta kontrol dokumentala bermatu ez ezik, prozedura guztiak eguneraturik zein momentuko beharrianetara egokiturik mantentzeko.

Bigarrena: 2005eko abendutik, kontrol dokumentalaren prozedura martxan dauka Udalak, dokumentuen kodifikazio modua xedatu eta beti azken edizioaren araberako funtzionamendua bermatzeko ez ezik etengabeko eguneraketa zein hobekuntza posible egiteko.

Hirugarrena: 2018an Iso 9001 eredutik, udal guztian eragingo zuen eta udal mailako kudeaketaren oinarriak ezarriko zituen Kudeaketa Aurreratuko eredu batera igarotzeko erabakia hartu zuen Udalak.

Laugarrena: Azken urtean, egoerak eraginda zein E-administrazioaren ezarpena dela eta, aldaketa beharriaz ugari eta eredu, jarraibide eta prozedura berrien martxan jartzea nabarmendu da, aldaketak modu antolatuan hedatu, uztartu eta sail guztietara helarazteko.

Bosgarrena: 2021eko apirilak 20ko Tokiko Gobernu Batzarrak, Udalaren kontrol dokumentalaren eguneratze prozesua gaurretzeko eta dinamika berria ezartzeko erabakia hartu zuen.

Argudioak

Lehenengoa: Aldaketa handi eta ugarien momentu honetan, erabateko garrantzia dauka, baliabide teknikoek eskaintzen dizkiguten abantailak aztertu, udaleko lan dinamikan uztartu eta informazio eraginkorra zein erreztasunez beteriko tramitazio aukerak bermatzea herritarrei.

Bigarrena: 2022ko apirilak 28an martxan jarri zen ZABALTZEN app bidez, Udalak, alde biko komunikazio baten aldeko apustua egin zuen, gobernantza ona eta gardentasunaren irizpideen araberako funtzionamendu berri bat aktibatu zuen eta jarraipen lana beregain hartu du, erantsitako jarraibidearen arabera, eguneratutako informazioa eskaini eta herrian zein udalean gertatzen diren ekimen, gertakari, azken orduko, prentsa ohar zein jarduera desberdinak momentuan jakiteo aukera eskaintzeaz batera, zuzendu, hobetu edo irtenbide bat eman behar zaien egoeretzat abisatzeko komunikazio kanal bat ahalbidetuta. Honi dagokionez, azken orduko gaien abisuak eraginkortzeko aukerak aztertu dira eta irtenbideak aurkitu dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000B761E0018J4O5K1Z4X9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 11/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/01/2023 11:33:06

DOCUMENTO: 20230751134

Datea: 11/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000B761E0018J4O5K1Z4X9



Hirugarrena: Udalaren erregistroa, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak jasotako betekizuneta egokitu izan da, hala nola:

39/2015 12.1 eta 12.2 art: *Interesdunei bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea.*

1. *Administrazio publikoek bermatu egin beharko diete interesdunei bitarteko elektronikoen bidez izan dezaketela harremana Administrazioarekin. Horretarako, haien esku jarriko dituzte beharrezko diren irispide-kanalak eta kasu bakoitzerako erabakitzen diren sistema eta aplikazioak.*

2. *Bitarteko elektronikoak erabiltzeko laguntza emango diete administrazio publikoek 14. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan sartzen ez diren interesdunei, hala eskatzen badute; batez ere, identifikazioari eta sinadura elektronikoari, eskaerak erregistro elektronikoro korarren bidez aurkezteari eta kopia autentikoak lortzeari dagokionez.*

Halaber, interesdun horietakoren batek ez badauzka behar diren bitarteko elektronikoak, funtzionario publiko batek egin dezake, balio osoz, hura administrazio-prozeduran identifikatzeko edo sinadura elektronikoa emateko izapidea, funtzionarioak berak erabil dezakeen sinadura elektronikoko sistemaren bitartez. Kasu horretan, behar den baliabide elektronikorik ez daukan interesdunak bere burua identifikatu egin beharko du funtzionarioaren aurrean, eta adostasun espresua eman hala jarduteko; hala jasota geratu beharko du desadostasuna edo auzia gertatzen den kasurako.

Lege honek bestalde, erregistro orokor eta elkarreraginkorra bermatzeko betekizuna ezartzen du bere 39/2015 12.3 artikuluan: *Estatuaren Administrazio Orokorak, autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek eguneraturik edukiko dute erregistro bat, edo beste sistema baliokideren bat, artikuluko honetan arautzen den identifikazio edo sinadurarako gaitutako funtzionarioak jasoko dituen. Erregistro edo sistema horiek elkarreragingarritasun osoa izan beharko dute, eta elkarrekiko konexioa gainerako administrazio publikoenekin, aipatutako gaikuntza horien baliozkotasuna egiaztatzeko.*

Erregistro edo sistema baliokide horretan agertuko dira, gutxienez, erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan lan egiten duten funtzionarioak.

39/2015 16 artikuluan: Erregistroak 1. *Administrazio bakoitzak erregistro elektronikoro kor bat izango du, hartan idazpena egiteko edozein dokumentu aurkezten edo jasotzen dela ere administrazio horri lotutako edo haren mendeko edozein administrazio-organo, organismo publiko edo entitatetan. Erregistro horretan jaso ahal izango da, halaber, beste organo edo partikular batzuei zuzendutako dokumentu ofizialen irteera ere.*

Administrazio bakoitzari lotutako edo haren mendeko organismo publikoek beren erregistro elektronikoa eduki ahal izango dute, buru duten administrazioaren erregistro elektronikoro korarekin osotara lotua eta elkarreragingarria.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000B761E0018J4O5K1Z4X9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 11/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/01/2023 11:33:06

DOCUMENTO: 20230751134
Data: 11/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Administrazio bakoitzaren erregistro elektronikorak atari baten moduan funtzionatuko du, organismo bakoitzari erregistro elektronikoa irispidea erraztuz.

Laugarrena: 3/2022 LEGEA, maiatzaren 12koa, Euskal Sektorre Publikoarena:

3/2022 70. artikulua.— *Administrazio elektronikoa ereduak Euskal Autonomia Erkidegoan izango duen garapena.*

1.—Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten instituzio eta enteei dago-kie administrazio elektronikoa ereduak garatzea beren araubide juridikoak ezartzen dituen lotura- eta mendekotasun-harremanekin bat etorriz.

2.—Administrazio elektronikoa ereduak garatzeko, jarduera hauek gauzatu beharko dira:

a) Definitzea herritarrekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarekin izan beharreko harremanetan bitarteko elektronikoen erabilera sustatzeko estrategiak.

b) Diseinatu, ezarri eta garatzea ondoko hauek errazteko behar diren aplikazio, prozedura eta tresnak: herritarren eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten entitateen arteko harremanetan bitarteko elektronikoa erabiltzea, beste aplikazio batzuekiko elkarrengarritasuna eta aplikazio, prozedura eta tresna horiek berrerabiltzea.

c) Herritarrekin izan beharreko harremanetan bitarteko elektronikoen erabilera sustatzea.

d) Administrazio publikoen komunikazio-sare elektronikoa sustatu, finkatu eta bultzatzea.

Bosgarrena: Udalak, 2022ko ekainak 06an 2022/2037 zenbakia daraman Dekretuaren arabera, Prozeduren onarpen eta egunaketa onartzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrarengan utzi du.

Seigarrena: Beharrezkoa da herritarrei erreztasunak eman, lege betepena bermatu, alde biko komunikazioa sustatu eta aurrerapen teknologiko guztiak eskuragai jartzeaz gain kudeaketa eraginkor bati bide ematea, prozedurak zehaztu, horien jarraipen lana burutu eta euskal administrazioa maila aurreratu batera eroatea: 3/2022 LEGEAk, maiatzaren 12koa, Euskal Sektorre Publikoarena:

3/2022 65. artikulua. *Kudeaketa publiko aurreratuko sistemak ezartzea.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak bere antolaketaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren efikazia eta efizientzia bultzatuko du, gizartearentzat balio publikoa sortzen laguntzen duten kudeaketa publiko aurreratuko sistemen ezarpena orokortuz.

b) Zerbitzuek herritarrei eta hartzaileentzat dituzten pertsona eta erakundeei behar bezala erantzuteko, zehaztu egin beharko da zerbitzu horiek nola garatuko eta kudeatuko diren prozesuen bidez. Horretarako, herritarrek zer beharizan duten eta zer espero duten ohikotasunez identifikatu behar da, haien kexa eta iradokizunei erantzun behar zaie, haien



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatzen ahal dozu.
Kodea:
07E7000B761E0018J4O5K1Z4X9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 11/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/01/2023 11:33:06

DOCUMENTO: 20230751134
Data: 11/01/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



eskaerei erantzun egokia eman behar zaie, haien ikuspegia sartu behar da eskainitako politika eta zerbitzuen hobekuntzan, eta haien parte-hartze aktiborako mekanismoak bultzatu behar dira.

d) Erronka publiko berriei erantzun eta proposamen berritzaileekin aurre egiten laguntzeko truke- eta ikaskuntza-testuinguruak sortu beharko dira, antolakundeko pertsonen zein kanpoko beste talde interesgarrietako pertsonen sormena gehituz, zeinek erraztuko baitute berrikuntza etengabea eta sistematikoa izatea.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: ZABALTZEN app baliabidea xedatzen duen jarraibidea UJ 17/2023-02 eguneratzea eta Kultura Saila, kultur ekimenen azken ordukoak kudeatzeko sail erantzule gisa onartzea.

BIGARRENA: Udalak duen SARRERA ERREGISTROAren UJ 16/2023-02 jarraibidea eguneratzea, Erregistroen interkonexio sistema barnera zein kanpora begira ahalbidetu eta udal lan dinamika zein erantzuleak finkaturik uzteko.

HIRUGARRENA: Udal sail guztiei erabaki honen berri ematea.

5.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkateak azaldu du 4712. Alkatetza dekretuaren edukia "Gabonetan (abenduaren 24tik urtarrilaren 8ra arte) zinegotzi delegatu eta TG Bren eskumenak zehaztea".

6.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeke gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000B761E0018J4O5K1Z4X9

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 11/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA - 11/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/01/2023 11:33:06

DOCUMENTO: 20230751134

Fecha: 11/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Orrri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E7000B761E0018J4O5K1Z4X9

Sinatua eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
11/01/2023
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-BERMEOKO ALKATEA -
11/01/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 11/01/2023
11:33:06

DOCUMENTO: 20230751134

Fecha: 11/01/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

